



Lau erdaldunetik bat diskriminatuta sentitzen da euskararen aldeko neurriak hartzen direnean

BAIEZTAPEN ZEHATZA ondokoa da: “Euskararen aldeko neurriek erdal-dunak diskriminatzen dituzte”. Beheko grafikoan ikus daitekeen moduan, %26 baieztapen horrekin guztiz edo nahiko ados dago; %61 nahikoa edo guztiz aurka dago; %7 ez dago ez aurka ez alde; eta gainerakoak ez daki zer erantzun.

Bigarren esaldiak honela dio: “Hemen euskaldunen eskubideak urratu egiten dira”, eta herritarren erantzunak: %29 guztiz edo nahiko ados dago; %56 nahikoa edo guztiz aurka dago; %7 ez dago ez aurka ez alde; eta gainerakoak ez daki zer erantzun.

Euskararen gaineko jarrez eta iritziez galdetu die EAEko herri-

rei Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Emaitzak *Euskara: jarrerak eta iritzia*k ikerketa lanean aurki daitezke www.euskadi.eus-en. Besteak beste, euskararen sustapenaz, hizkuntza eskubideez, lan munduaz, euskara-gaztelania-ingelesa hirukoteaz, eta euskararen garrantziaz galdetu diete herritarrei.



Gaztaren azalpenak: Euskara erabili nahi izateagatik askotan diskriminatuta sentitu direnak %4; noizean behin %9; diskriminatuta sentitu ez direnak (euskara jakin edo ez) %75; euskara ez jakiteagatik noizean behin diskriminatuta sentitu direnak %8; askotan %3; eta erantzun ez dutenak %2.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Troikak otzan nahi gaitu

GREZIA IGAROTZEN ARI DEN EGOERA, burujabea den beste edozein herri ere igaro dezake. Beraz, orain badakigu. Igandeko erreferendumeiko emaitza edozein izan zitekeen, baina ondorioa iguala. Funtsezkoa da Europako Batzordea, Nazioarteko Diru Funtza eta Europako Banku Zentrala barne dituen Troiak, herri eta gobernu guztiak otzan nahi dituela, bere politika austeriziden eta murrizketa sozial nahiz laboralen menpe.

Nahi dute Europa bat euren tankerakoa, merkataritzara emana. Horretarako xantaia erabiltzen dute, joko zikina, asfisia ekonomikoa eta terrora, herritarrek euren politikak onar ditzaten. Greziarren izua zabaldu nahi izan dute esanez erreferendumean EZ ateraz gero –Troikaren politiken kontrakoek defendatzen zutena– kaosa eta hondamena etorriko zela herrialdearentzat, baita Eurogunetik ateratzea ere, egia ez den arren.

Erreferendumen aurreko egunetan fronte guztiak zabaldu dituzte euren politika basati eta antisozialen aldeko botoa jasotzeko. Fronte politikoan Euro-

pako gobernu guztiak aritu dira –baita Eusko Jaurlaritza ere– Troika babesten, bere boterearen beldur antza. Finantzen esparruan burtsak jarri dituzte martxan, kapitalismoaren espresio gorena, gorantz eta beherantz manipulatu biztanleria larritzeko ezezkoaren aurrean. Medioetan ere, telebistak, irratia eta prentsak orokorrean, Troikaren planteamenduak bideratu ditu eskusiboki, eta ondorioz herritarra presionatu dute BAI botatzera joan dadin. Alferrik baina, Greziarrek planto egitea erabaki baitute.

Azkeneko hauteskundeetan ezkerak irabazi zuen Grezian. Herri heleniarrak amets egiten du, ez Europatik ateratzeko baina aldatzeko; merkatuaren Europa desegin eta herrien Europa eraiki ahal izateko: sozialagoa, justuagoa eta solidarioagoa. Beraz, “amets egiten uzten ez diguten bitartean”, gure lagun Periko Solabarriak zioen moduan, “ez diegu lo egiten utziko”, ez Troikari ezta hura babesten dutenei ere. Horretan ari dira greziarrak.

Juan Mari Arregi